



CITY PARKING

## 1. Balorezko Proposamena:

### **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

#### **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Zenbat aldiz gertatzen da herri edo hiri batera joan, tokia bisitatzeko, lanera joateko edota zeregin bat egiteko, eta izugarrizko denbora galdu kotxea aparkatzeko toki bat bilatzen? Askorentzat haien egunerokotasunaren parte da eta horretarako, *City parking* aplikazioa ideia bikaina da.

*City parking* edozein herrira joan eta kalean zein aparkaleku dauden libre jakiteko balio duen aplikazioa da. Egun, kotxearen erabilera handitu baino besterik ez da egin eta horrekin, kaleetan aparkaleku bila dabiltzanak. *City parking* aplikazioaren bidez bilaketa prozesuan galtzen den denbora aurrezten da, hutsik dauden aparkalekuen informazioa baituzu eta zuzenean bertara joango zarela. Hau da, herri edo hiriaren mapa bat izango duzu eta bertan berdez, libre dauden aparkalekuak izango dituzu markatuta. Horrela tokia hiriko zein gunetan dagoen jakingo duzu.

Aldi berean, toki bila denbora gutxiago arituko zarenez, gasolina aurreztuko duzu, baita gutxiago kutsatu ere. Era berean, errepideetan automobil kopuru txikiagoa egongo denez, hiriko segurtasuna handituko da istripu gutxiako egongo baitira.

Gainera, guztiz berritzailea den aplikazioaren erabilera oso erraza da. Lehenik eta behin, saioa hasi behar da, mugikor zenbakia edo email-a emanda eta ondoren, kotxe marka zehaztu eta matrikula eman. Modu horretan, aplikazioan libre agertzen diren aparkalekuak kotxearen tamainarako egokiak izango dira. Automobil bat baino gehiago edukita ere, biak erregistratzeko aukera dago. Horrela, aplikazioan sartzerakoan momentuan erabiltzen ari zaren kotxea aukeratu ahal izango duzu.

Horretaz gain, bigarren galdera bat ere erantzun behar da; hau da, nora joan nahi duzun. Behin hori zehaztuta, aplikazioak libre dauden aparkalekuak markatuko ditu. Hori gutxi balitz, gustoko duzun tokia aukeratu dezakezu eta aplikazioak zuzenean eramango zaitu hartara. Izan ere, gidatzen ari bazara, jarraibideak ematen dituen ahots bat aktibatzeke aukera dago, arreta guztiz errepidean mantentzeko helburuarekin. Gainera, tokiren bat okupatzen bada, segituan markatuko du aplikazioak. Aipatzekoa da ere aplikazioa hainbat hizkuntzatan jarri daitekela, euskara, ingelesa, gaztelania eta frantsesa besteak beste.

Horrelakoa izango zen aplikazioaren itxura:

